

Elgoibar - 1308. zenb.
XXX urtea - 2023-12-01



TOKIKOM

BARREN

Euskaltzain oso karguari zin egin dio

Andres Alberdi





BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIA - Abenduak 28, osteguna - 20:00

Onintza Enbeita
Maialen Lujanbio
Sustrai Colina
Nerea Ibartzabal
Oihana Iguaran

Gai-jartzailea: Maite Berriozabal

Sarreraren aurre-salmenta: abenduaren 11tik 22ra

Prezioa: 13€ (11€ Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00 - 18:00) - 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Argitaratzailea:



Eduarne Izagirre

Psikologoa

Greba, eskubidea ala pribilejioa?



"Feminismoaren borroka oinarrizko eskubide nagusiak bermatuak ditugunok lideratzen dugu"

Babeslea: Laguntzaileak:



Urte osoa nabil ideia honi bueltaka: zaintza erdigunean jartzeak zer esan nahi duen; ekonomia feminista, antikapitalista eta antiarrazista batetik nola aldarrika daitekeen gai hau. Azken bilgune feministako hausnarketa nagusi bat izan zen intersektionalitatea geure praktiketan barneratzearen beharra, arraza eta klaseak eragindako bazterkeriari bereziki arreta jartzeko beharra. Feminismoaren borroka -borroka sozial askorena moduan- hiritartasun izaera eta oinarrizko eskubide nagusiak bermatuak ditugunok lideratzen baitugu, eta geure burua geure pribilegiotatik berrikusten ez badugu, zenbait bazterkeria-ardatz elikatu eta mantendu ditzakegu.

Gizarte zerbitzuen arloan dihardut lanean, eta bazterkeria eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonak (gehienak emakumezkoak eta adin txikikoak) artatzea da nire aktibitate profesional nagusia; eta hori kontuan hartuta, eurek egin ezin duten greba neuk eginaz lagunduko al nuke euren egoera aldarrikatzen? Edo neure pribilejioei lehentasuna ematen egongo nintzateke, euren arreta beharraren gainetik?

Geure mendekotasun izaera onartu eta zaintza beharrak erdigunean jartzea, horien feminizazioa aldarrikatuz, nolatan ezta bihurtzen gizona gizona deialdia? Ez al ditugu gure gizonak haserretu/mindu nahi?

Ez al litzateke zuzenagoa oinarrizko sinismenak eta eredu astintzea elkar zaintza sustatuz? Lan produktibo eta soldatapekoa duen familia kide bakarra gizona izaterakoan ulertzen da gizon hori emakumea "mantentzen" ari dela; baina emakumeok lanean hasi garenean, ikusi dugu ez dugula beti honetarako askatasunik sentitzen, zaintza kargak ezinbestekoak direlako familia bizitza duin eta osasuntsua mantentzeko. Orduan, zaintza erdigunean jartzea ez al litzakete hori auzitan jarri eta pentsatzen hastea emakumeak bizitzaren sostengu izateari esker izan dutela gizona gizona ibilbide profesional bat izateko aukera? Ez al genuke hobe ikuspegi horretatik aztertzea gizartea?

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Eduarne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Abenduaren 6a eta 8a jai egunak direla-eta, datorren barikuan ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo zenbakia abenduaren 15ean jasoko duzue.

BARREN

2023ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpena

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak elgoibartarrok betidanik izan dugun euskaldun izateko nahia aldarrikatu nahi dugu. Hala izan da orain arte eta aurrerantzean ere hala izatea nahiko genuke. Udalak eta Elgoibarko Izarrak behintzat gure esku dagoena egiten jarraituko dugu elgoibartarrok euskaldun izateko borondatea sustatu eta areagotzeko. Eta hori herriko entitate eta eragileekin batera egin nahi dugu, elkarrekin eta elkarlanean, sare-lanean, hori baita Elgoibarren euskara eta euskaltasuna sustatzeko modurik eraginkorrena.

Egin zutelako gara. Gure aurrekoek egin zutelako gara, bestela ez ginen izango. Eta hori da, hain zuzen ere, gaur Herriko Antzokian ikusi, entzun eta sentituko duguna. Gure herriko euskalgintzaren historiaren atal bat baino ez dugu jaso - 1950-1990 urte artekoa -, baina bertan argi ikusi dugu egoerarik zailenetan ere euskaldun izaerari eutsi diola gure herriak. Euskaltasunak ezagutu duen zapalkuntzarik larrienetakoan ere, ikusi dugu Elgoibarrek zer eta zenbat egin zuen euskaltasunari eusteko.

Egiten badugu izango dira. Orain guri dagokigu egitea. Guri dagokigu gure aurrekoei lekukoa hartzea. Eta guk egiten badugu, gure ondorengoak ere izango dira. Euskalgintzaren transmisioak ez du etenik izan gure herrian, eta egoera oso bestelakoa bada ere duela 70 urteko Elgoibarrekin alderatuta, helburua bera da: Elgoibar euskaldunagoaren mesedetan jardutea. Horretarako eragin nahi dugu, besteak beste, herritarren sentsibilizazioan, hezkuntzan,

aisialdian, arlo sozio-ekonomikoan, lan munduan, arlo digitalean... Ezin ahaztu Elgoibarko hizkuntza aniztasuna, hor ere eragin nahi dugu, hizkuntza eta kultura guztiei aitortza eginez, baina euskara eta euskal kultura erdigunean jarrita.

Asko da Elgoibarren egin duguna, baina asko da egiteke eta egiteko daukaguna. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elgoibartarrok euskaldunagoak izateko egiten eta eragiten jarraituko dugu, Elgoibarren euskaraz bizitzea gero eta normalagoa izan dadin. Eta hori herritarrekin batera egin nahi dugu, herriko entitateekin elkarlanean. Bakoitzak berean egin eta denon artean geurearen ardura hartuta. Elkarrekin eta elkarrentzat lan eginez. Elgoibargintzan.

Gure aurrekoek egin zutelako gara, eta guk egiten badugu, gure ondorengoak ere izango dira.

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea
eta Elgoibarko Udala

EXPRESS ESKAINTZAK!

SMS2HKW03E BOSCH ONTZI-GARBIGAILUA



569 €

A1G E

- Home connect app-aren bitartez zarata murrizteko aukera
- Altuera erregulagarria duen goiko otarra
- Aparteko lehorte-futzioa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Herriko historia eta ondarea ezagutarazteko lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Abenduaren 30ean 40 urte beteko dira Mendaroko herria sortu zela, eta urtemuga horren harira zenbait ekintza prestatzen ari da Mendaroko Udala. Hasteko, lehiaketa estiloko jolasa antolatu du abendurako, herriko historia eta ondarea ezagutarazteko. Ekimen hori gauzatzeko In Leike kultur elkartearen, Mendaro ikastolaren eta Arno guraso elkartearen laguntza izango du Udalak.

Herrian mugarri izan diren gertakarien, herriko pertsonaia esanguratsuen, toponimiaren eta bestelako kontuen inguruko hainbat galdera sortuko dituzte Udaletik, eta astelehenero hirulau galdera zabalduko dituzte. Galdera horiek eskolaren bitartez zabalduko dizkiete eskolameei astelehenetan, eta etxekoen laguntzarekin erantzuteko aukera izango dute. Erantzunak, eskolan bertan jarriko duten kutxa batean utzi beharko dituzte ostiralerako beren izen-abizenak eta ikas-maila zehaztuta. Ekimenean, baina, eskola-umeez gain, herritar orok izango du parte hartzeko aukera. Galderak Udalaren webgunean eta sare sozialen bidez zabalduko dituzte astelehenero, eta ostiralera arteko epea izango dute erantzuteko (bi egunak barne). Erantzunak Morroskillo dendan eta udaletxeko harreran (arratsaldez, liburutegian) utzi beharko dituzte. Udaletik zehaztu dute herritar



bakoitzak astero behin bakarrik parte hartu ahal izango duela lehiaketan.

Ostiralero hustuko dituzte kutxak, eta galderak ondo erantzun dituztenen artean sei sari zozkatuko dituzte, kutxa bakoitzeko bi. Sari banaketa abenduaren 30ean egingo dute, Landarbaso abesbatzak San Agustinen ematekoa duen kontzertuaren bukaeran. Landarbaso Abesbatza 1991an sortu zuten Erreterian, 16 eta 36 urte bitarteko gaztez osatutako abesbatza bezala. Gaur egun, hiru taldek osatzen dute elkarte eta 100dik gora kide dauzka: Kontari (8-14 urte) Landarbasoko Dizdizka Taldea (15-21 urte) eta Landarbaso Abesbatza (17-45 urte). Kontari taldekoak dira Mendarora etorriko direnak, eta kontzertua, 12:00etan izango da, San Agustinen.

'Egin nirekin ere euskaraz' kanpainarekin bat egin du Mendaroko Udalak

UEMAk sortutako *Egin nirekin ere euskaraz* kanpainarekin bat egin du Mendaroko Udalak. Sustraiak beste herrialdeetan izan arren gurean errotu diren hainbat euskaldunen eskariz sortu du kanpaina UEMAK, gainerako herritarrek euskara ukatzen dietela sumatuta. Euskarak kolore asko dituela eta azalaren kolorea askotarikoa izan arren herritar horiek guztiak euskaldunak direla gogoratu nahi dute kanpainarekin. Horregatik, beraiekin ere euskaraz egiteko eskatu nahi izan diete kanpaina sustatu duten jatorri askotariko lagunek gainerako herritarrei: "Euskara ukatzen digutenean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen digute, nahi gabe izan arren", adierazi dute kanpainaren sustatzaileek. Eta gauza bera eskatu die Mendaroko Udalak mendarorrei.



Nuala elkarteak informazio-mahaia jarriko du domekan, Kalegoen plazan



A benduaren 3a Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna da eta Nuala elkarteak kalera irtengo dira, desgaitasun intelektualari edo aniztasun funtzionalari buruzko informazioa emateko. Informazio-mahaia jarriko dute Kalegoen plazan, elkartean egiten dituzten jardueri buruzko informazioa emateko (kirola, aisia, Bizipoza...), eta aniztasun funtzionala duten pertsonen senideen, irakasleen, orientatzaileen eta, oro har, herritarren interesekoa izan daitekeen informazioa zabaltzeko. Elkartearen materiala ere salduko dute, eta umeentzako tailerrak ere egongo dira. 10:00etatik 14:00etara egongo dira plazan.

Ikasketa gelarako txartela Gotzon Garate liburutegian ere eskura daiteke

Aita Agirre eraikinean dagoen ikasketa gelara sartzeko txartela Udal Liburutegian ere eskuratu daiteke. Interesdunek eskaera formalak egin behar dute, telematikoki <https://labur.eus/IkasketaGela> helbidean edo aurrez aurre, HAZ-en edo liburutegian. Ikasteko gela asteleheneetik domekara egoten da zabalik, 08:00etatik 23:00etara. 16 urtetik gorakoek erabili dezakete ikasketa-gela, eta gehienez 24 lagunentzako lekua dauka. Informazio gehiagorako 943 741 050 (HAZ) telefonora deitu edo liburutegira bertara jo daiteke.

Energia eta material krisiari buruzko hitzaldia emango dute hilaren 13an Turielek eta Aretxabalak



Karakate Bizirik taldeak antolatuta, energiari eta material krisiari buruzko hitzaldia emango dute datorren abenduaren 13an Antonio Turielek eta Antonio Aretxabalak. Turiel Fisika eta Matematikako lizentziaduna eta Fisika Teorikoko doktorea da, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Ikertzaile zientifiko gisa lan egiten du CSICeko Bartzelonako Itsas Zientzien Institutua. Turielek adierazten duenez, munduan azken mendeotan nagusitu den ekonomia sistema kontsumista kapitalistak agortu egin ditu edo agortzeko bidean ditu gizakiak darabiltzan hainbat baliabide, eta bere ustez, energia kontsumoa murriztea da aurrera egiteko daukagun aukera bakarra. Aretxabala, berriz, Geologian Lizentziatua da Oviedoko unibertsitatean, eta Madrilgo obra publikoetan espezializatua. Zaragozako eta Nafarroako Unibertsitateetan irakasle aritu da. Hitzaldia 18:30ean izango da, Musika Eskolako auditoriumean.

Abenduaren 12ra atzeratu dute Arantza Urretabizkaiaren hitzaldia

Arantza Urretabizkaiak (Donostia, 1947) aste honetan eman behar zuen *Azken Etxea* liburuari buruzko hitzaldia, baina abenduaren 12ra atzeratu dute. Idazle donostiarrak narratibako Euskadi Saria irabazi du aurtien liburu honi esker. Liburuan, azken etxearen bila dabil protagonista, bizitzaren azken arnasaldiaren bila, azken babes-lekuaren bila. Hendaia aldeko etxe bat begiz jo, eta harekin tematu da. 19:00etan izango da hitzaldia, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Azkoitiko danborradaren 75. urteurrenean parte hartu dute Elgoibarko danborradako kideek



Azkoitiko helduen danborradak 75 urte bete ditu, eta San Andres jaietan egin duten ospakizunera gonbidatu dituzte Elgoibarko danborradako kideak. Barikuan Azkoitiko Baztartxo aretoan jo zuten, eta zapatuan

danborradan hartu zuten parte. Jose Osoro eta Marci Rodriguez mikelete paperean joan ziren, eta Santi Galdos kanoiarekin, eta danborradak egin zituen bi geldiunetan bota zituzten kanoikadak. 500 bat lagun irten ziren gutzira.




'Bizilabe'-ko gazteak emakume zientzialariek batu dira

Elgoibarko Udalak eta Elhuyarrek sustatutako *Bizilabe* ekimenaren baitan, II. Parekoen Topaketa egin dute Lilan. Elgoibarko emakume zientzialariek eta Bizilabe Elgoibarko 10-14 urte bitarteko gazteek zientzia alorreko ideiak trukatu dituzte. Miren Agirre, Nagore Ruiz de Escudero, Amaia Gabilondo, Ane Garmendia, Ana Carolina, Eva Rodriguez eta Iraia Silva dira parte hartu duten emakume zientzialariak.

Piñata tailerra eta jai mexikarra antolatu ditu 'Auzoko' egitasmoak

Elgoibarko Izarrak eta Udalak kudeatzen duten *Auzoko* egitasmoaren barruan piñata tailerra eta jai mexikarra antolatu dituzte. Abenduaren 16an egingo dute tailerra, eta urtarrilaren 13an izango da jai. HH5etik gorako umeek eta haien etxeok hartu ahal izango dute parte. Bi ekintzak goizez izango dira, 10:00etatik 14:00etara, doan. Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko eta horretarako 747 489 048 telefonora deitu behar da.

92.841 da Mendaroko garagardo feriako Gabonetako loteriaren zenbakia



Inprenta arazo bat dela-eta, Mendaroko garagardo ferian saldu zuten Gabonetako loteriaren boletoetan bi zenbaki ageri ziren. Arduradunek argitu dute 92.841 dela zenbaki zuzena. Sortutako nahasmenagatik barkamena eskatu dute.

ANDRES ALBERDI

Euskaltzain osoa

✍️ Ainaro Argoitia
👤 Asier Orbea / Imanol Larrañaga

2022ko azaroaren 26an izendatu zuten euskaltzain oso Andres Alberdi (Getaria, 1950), eta zapatuan Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia egin zuen, Getariako udaletxean. Bere mintzaldian, araukin izan duen bizipen pertsonalez eta harremanez jardun zuen, bi partetan. Lehenengo partean, historiari erreparatu zion, historia objetiboari eta historia pertsonalari, eta bigarren partean, iragana eta etorkizuna lotu zituen, euskararen eta arauen gaineko kezka eta gogoeta batzuk utziz hausnarketarako. Ekitaldi ofizial batek izan ohi dituen osagai guztiak izan zituen ekitaldiak, eta besteak beste Getariako Salbatore abesbatzak, bere alaba Uxue Alberdik eta Eñaut Elorrieta musikariek parte hartu zuten ekitaldian.



“Euskararen benetako erronka arauena baino gehiago kontzientziarioarena da gaur”

'Ametsik ederrenean ere ez zitzaidan agertu sekula halako irudirik' esan duzu zapatukoaz.

Euskaltzain-kideak, senideak, lagunak, lankideak... izugarria zen irudia. Hegan bezala sentitzen naiz oraindik. Ekitaldian, dar-dar sumatzen nituen belau-koskorak, baina asmatu nuen behintzat prestatutako testua irakurtzen. Larunbatekoagatik eskerrak eman nahi dizkiot Getariako Udalarri eskatutako dena eta gehiago ere jarri zuelako ekitaldirako. Aitortu behar dut zalantza ere egin nuela sarrera-hitzaldia Getarian edo Elgoibarren egin, nire burua getariartzat dudan arren, 50 urte egin ditudalako Elgoibarren eta hemen egindako irakasle lanaren ondorio delako neurri handi batean hau, baina azkenean Getarian egitea erabaki nuen.

Atzera egingo dugu. Euskara bizitza sozialean indar betean zegoen herrian jaio zinen, baina

euskal kontzientzia filosofiako ikasketak egiten ari zinela erne zitzaizula irakurri dugu zure ibilbideaz Euskaldintzaindiak egindako laburpenean.

Beste mundurik zegoenik ere ez genekien guk umetan. Modu naturalean bizi genuen euskara Getarian; euskara bizi-bizia genuen. Hala ere, ez genekien euskarak gramatika bat zuenik, ez genekien arauak zituenik. Getarian apaiz zegoen Mikel Zuazabeitiak eman zidan lehen gramatika-ikasbidea, 8 bat urte nituela. 11 urterekin Saturrarango seminariara joan nintzen gero, eta euskal kontzientzia areagotu egin zitzaidan han; identifikazio modu bat hasi ginen ustekabeen hartzen. Zortekoak izan ginen frankismoaren gordinean bizi izan arren, euskal komunitate bateko partaide sentiarazi gintuztelako han. Guk ez genekien orduan, baina han bazen irakasle talde bat guregan euskararen aldeko grina

erein zuena. Hantxe ezagutu nuen Joan Mari Lekuona eta hark irakatsi zigun hizkuntza bat ondo ikasteko, hizkuntza horren arimara iritsi beharra dagoela. Donostiako seminarioan izan nintzen gero eta han ere euskal giroa nagusitzen zen. 17-18 bat urterekin hartu nuen euskaldun izatearen kontzientzia benetakoa, baina ez zen izan zerbait pertsonala. Beste ikaskide asko neuzkan planteamendu berdinekin, eta hala hasi ginen ordura arte natural-naturala zitzaigun hori motibazio politiko batekin kateatzen.

Euskararen eta euskal literaturaren irakaskuntzarekin lotuta dago zure ibilbide profesional eta akademikoa. Elgoibarko ikastolan hasi zinen lanean, 1973an, baina gerora institutuan egin zenituen urteek dute bereziki garrantzia zure ibilbidean. Ez genekien institutuan hasteko erabakia ez zela pertsonala bakarrik izan.

23 urte bete berri hasi nintzen Elgoibarko ikastolan lanean eta 1980. urtera arte aritu nintzen han. Garai hartan ikastolaren bidea Lehen Hezkuntzara mugatua zegoen, eta gero ikasleek ez zuten bailaran ikasketak euskaraz jarraitzerik. Donostian-eta lizeoak sortzen hasiak ziren Bigarren Hezkuntza euskaraz emateko, baina Elgoibarren ikastolaren eraikin berria egiten ari ginen sasoi hartan eta aurrekonturik ez geneukan beste ezertan hasteko. Eibarren ere halatsu zebiltzan, eta hala, bailarako ikastoletan erabaki genuen onena irakasle lizentziadun talde bat oposizioetarako prestatzea izango zela, hartara institutuan lanean hasi eta barrutik euskalduntzeko. Enrike Larrañaga zen orduan institutuko zuzendaria eta Pello Arrieta zegoen idazkari. Haiekin hitz eginda hartu genuen bide hori; erabaki estrategikoa izan zen.

Aitzindari izatea egokitu zitzaigun guri. Beharrak eraginda eman genuen pausoa eta beharrak eraginda aritu ginen testuliburuak sortzen ere. Hala hasi ginen institutuan, eta hamar urtean lortu genuen ordura arte erabat erdalduna zen erakundea euskalduntzea. Beste kontu bat da orain nola dagoen, baina ez da hori Institutuko kontua bakarrik. Kontestua erabat aldatu da eskoletan, eta inork ez dauka kulparik. Gaur egun, erdarak itota bizi gara, eta bizi dira batez ere umeak, eta mundu koloretsua, berria, dinamikoa ez dator euskaraz. Euskara berri beharra daukagu derrigor, mundu berrirako.

*"Formularik ez daukat,
baina bai derrigor hartu beharreko
pastilla bat: ezin dugu ahaztu
euskaldunak garela eta militante izatea
tokatuko zaigula beti"*

Eta zer itxura hartzen diozu orain euskararen auziari?

Zaila ikusten dut. Eskaintzen zaigun mundua oso mundu indibidualista da eta guk herri modura jokatu behar dugu. Hemen zerbaitek funtzionatu badu, auzolanean egindakoak izan da. Ikastolak sortu zirenean bazegoen helburu politiko bat hizkuntzarekin lotutakoa, baina bazegoen gauzak auzolanean egiteko ohitura ere. Elgoibarren, jendea papera biltzen ibiltzen zen astero, etxe etxe, Aubixa aterpetxea sortzeko. Gaur egun hori pentsaezina da. Formularik ez daukat, baina bai derrigor hartu beharreko pastilla bat: ezin dugu ahaztu euskaldunak garela eta militante izatea tokatuko zaigula beti. Herri txikia gara, indar gutxi daukagu eta ez digute lagako gure nortasun hori erakusten. Beraz, antortza hori guk mantentzen ez badugu piztuta, jai daukagu, eta itzaltzen ari zaigu. Euskaldun izatearen kontzientzia kolektiboa galtzen ari da.

Arauekin duzun bizipenez aritu zinen zapatuan. Zuen alabari entzuna da edozein literatura liburu hartzen duzula ere, lehenengo zuzendu egiten duzula eta gero irakurri.

Bai, hori hala da, baina pintore batek ere ikusten badu pareta bat pintatu gabe, sufritu egingo du lehenengo begiratuan. Nik ere, neure burua lasai egon dadin, lehenengo ikusmira gramatikala ematen diot testuari, eta bigarren bueltan mamiari erreparatzen diot. Urteetan ibili nintzen eskoletako liburuetako euskara gainbegiratzen EIMArako, eta hortara biziatu naiz, baina asmatzen dut horrekin biziaren.

Zeuk ere galdera egin zenuen sarrera-hitzaldian: 'Araua al da dena?'

Arauk behar-beharrezko ditugu, bai eta arau horiek argi esplikatzea ere jendeari, baina dena ez da araua. Euskararen benetako erronka



kontzientziariena da gaur egun, arauena baino gehiago. Gauza bat da euskararen normatibizazioa, hizkuntzaren arauak lantzea eta hizkuntza aberastea, eta bestea da normalizazioa, euskararentzako eremuak irabaztea, erabilera sustatzea. Azken azterketa soziolinguistikoek erakutsi digute euskararen ezagutza igo bada ere, erabilera ez dela proportzio berean hazi, eta horretara jarri beharra dugu lehenengo, euskararen arazoa ez baita gramatika bat gehiago edo gutxiago egitea, baizik eta euskararen estatusa. Euskararen normalizazioaren helburuak garbitu eta findu behar ditugu, eta horien aldeko pedagogia egin.

Zeintzuk dira garbi izan beharko genituzkeen helburuak?

11 ardatz formulatu nituen sarrera-hitzaldiaren bertsio originalean, baina ekitaldirako laburtu beharra zegoen eta bost puntutara ekarri nituen, besteak, gehiago edo gutxiago, geureganatuta ditugulakoan. Lehenengoa da onartzea euskara batua ez dela batere monolitikoa; ez dela uniformea. Ulertu behar dugu euskara batua kolore askokoa dela, hiztun bakoitzak berera moldatzekoa; 'Nahi duzun bezala' esatea bezain euskara batua dela 'Gura duzun legez' esatea, alegia. Eta horri lotuta ulertu behar dugu, baita ere,

euskara batua eta euskalkiak osagarriak direla, eta bakoitzak bere tokia eta funtzioa dituela. Joera dago norik bere herriko hizkera bandera gisa hartu eta harekin aritzekoa, kontestua eta hartzailea edozein delarik ere. Iñigo Martinezek Realta utzi zuenean zabaldu zuen mezua datorrik burura. Bereziki Realzale gipuzkoarrei esan behar zien agur eta Ondarroako euskara itxi-itxia erabili zuen despedidan. Hori ez kalibratzea... Txarren-txarrenean egin zezakeen gipuzkeraz, baina logikoena euskara estandarrean egitea zen, txokokeriak bazterturta.

Erregistroak kudeatzen ere ikasi behar dugu. Hizkera-mailak eta hizkera-motak daude, eta bereizten ikasi behar dugu. Ikusita nago taberna bateko komunean "izorruta dago" idatzita. Gaztelaniaz idatziko al genuke "*está jodio?*" Ez, ezta? "*Averiado*" edo "*No funciona*" jarriko genuke gaztelaniaz; bada, euskaraz ere berdin: "Ez dabil". Euskaraz hori ez digute erakutsi eta ez dugu bizi. Begira, telebistan eta abar, umeez ez dute gaztelania bakarrik ikasten; ikasten dute gaztelania bere erregistro guztiekin, eta ikasten dute nahi gabe, konturatu gabe. Euskarak leiho hori falta du eta tradizioa ere gaztelaniak baino makalagoa duenez, herren gabiltza. Eskoletan ere ez da lantzen hori; liburuko euskara erakusten dute eskoletan. Antzerki gutxi egiten da, film gutxi ikusten dira euskaraz, kantu gutxi entzuten

dira, eta beste erregistro horiek ez dira behar beste potentziatzen. Eskoletan eta hedabideetan gehiago landu behar da erregistroen kontua.

Eskola eta hedabideak aipatu dituzu. Haien erantzukizuna ezinbestekoa dela diozu laugarren puntuan. Zer dago egiteko?

Ebidentea da eurei dagokiela batez ere aintzindari-lan eredugarria egitea, baina gaur egun, atzerapausoak ikusten dira euskararen erabileran eta kalitatean. Eskoletan gero eta euskara gutxiago entzuten da eta ez dakit zenbateraino egiten dugun horren kontra. Eragin behar dugu, eta estrategia oinarritzkoena da ezin ditugula umeak bakarrik laga, ezta jolas-orduan ere. Hor ere lana egin behar da, latza daukagulako. Hezkuntza-ereduek ere ez dute lortu uste genuen emaitza, eta bada ordua urrats bat egiteko funtzionatu ez duena aldatzeko. Eredua zein den? Ez dakit, baina jarri behar gara horretara. Euskararen kalitatean ere okerrera egin dugu eta irakasle asko dago garai batean EGA ateratzeko lortu zuen mailarekin aritzen dena geroko eguneratzerik gabe. Era berean, hezkuntza-sistema ez da gai euskal tradizioaren ezagutza bermatzeko eta eskoletan erabiltzen den ikasmaterial asko ez da hemen sortutakoa. Horixe da daukaguna: Gaur egun, Batxilergoan dauden askok ez dute jakingo Axular zein den. Zer egiten ari gara? Euskaldun osoak sortu behar ditugu.

Gauza bera esango nuke hedabideez. Euskara moldeez aparte, telebistako saio askotan erabiltzen duten euskara antipedagogikoa da. Kabreatzen nau urteetan hankasartze berberak errepikatzen dituztela ikusteak eta aspaldi ez erabiltzeko esanda dauden hitzak erabiltzen dituztela entzuteak. Horrek erakusten du ez dagoela inor hizkuntza zaintzen.

'Hizkuntzak ez dira komunikazio-tresna huts. Hizkuntzek herria egiten dute' diozu 5. puntuan.

Herriaren arnasa da hizkuntza eta ez dakit zenbateraino garen kontziente. Espainol nazionalista harro egoten da bere hizkuntzarekin eta gu, aldiz, ez gara ausartzen gure hizkuntza euskara dela esatera. Konplexuak laga eta edukatu ditzagun auzoak; esan diezaiegun tenore berean gabiltzala, bi sistema linguistiko direla, eta hizkuntzarena ez den beste arazo bat dela hor azpian egosten ari dena. Euskara da

"Ulertu behar dugu euskara batua kolore askokoa dela, eta ulertu behar dugu euskara batua eta euskalkiak osagarriak direla; bakoitzak bere tokia eta funtzioa dituela"

euskaldunon itsasoa, eta antortxa hori ezin dugu bazterrera laga. Euskararen militante ez bagara, ez daukagu irtenbiderik eta alferrik gabiltza arauak ematen.

Arautze-premia duten esparruak zerrendatu dituzu sarrera-hitzaldian, eta arautu beharrekoan lehenetsuen rankinga ere osatu duzu. Arau horiek gizarteratzeko moduan asmatzen al da?

Zalantzarik ez daukat Euskaltzaindiak jarraitu behar duela arautzen eta erabiltzaileen zalantzak argitzen, eta lehenetsuen artean aipatu dituztatzuk, besteak beste: adostea aginterako adizki perifrastiko laburtuak egokiak diren ala ez; zehaztea hikako erregistroaren mugak zein diren, zehaztea nola eman behar diren ehunekoak; arautzea nola esan behar diren zenbakiak eta ETA juntagailudun esaldiak; zedarritzea ERE adberbioaren erabilera; arautzea ospakizun-egunak nola eman behar diren; eta hitz elkartuei buruzko araua berraztertzea, erabaki batzuk sinpletzeko. Urrats handiak egin dira, baina oraindik bada eginkizunik, hizkuntza guztiak bezala zerbait bizia delako euskara ere.

Eta bai, asmatu behar dugu arauak gizarteratzen. Euskaltzaindia saiatzen ari da batez ere bere bi proiektu gizarteragarriak, *Euskaltzaindiaren hiztegia* eta *Euskara batuaren eskuliburua*, jendeari erakusten, baina ezin gara ailegatu, erdarak dena jaten duelako. EBek bost edizio izan ditu eta seigarren edizio bat apartekoa, 2.000 alekoa, Jaurilaritzak egin zuen eskoletara bidaltzeko. Eskola bakoitzera bi ale bidali zituzten, baina eskoletako maisu-andereñoek ez dute ezagutzen.

OHARRA: Euskaltzaindiaren webgunean (euskaltzaindia.eus) kontsultatu ahal izango du Andres Alberdiren sarrera-hitzaldiaren bertsio originala, luze gabe.



24.065.643 euroko aurrekontua onartu du Elgoibarko udal gobernuak 2024rako, aurtengoa baino %24,91 handiagoa

Orain arteko aurrekonturik handiena onartu du 2024rako Elgoibarko Udalak: 24.065.643 eurokoa. 2023koa baino %24,91 handiagoa da; 4.796.520 euro gehiago guztira. Martitzeneko udalbatzaren osoko bilkuran onartu zuten aurrekontua, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk kontra bozkatu zuen, aurrekontuei zehaztasuna falta zaila arrazoituta "funtsezkoak diren gaietan": "Aurrekontuen arloa proposamen eta neurri zehatzen eremua da, eta beraz, edozein hitzarmenek zehatza behar du izan, kuantifikatua eta denboralizatua. PNV eta PSEren erantzunak gutxi du horretatik funtsezkotzat jo ditugun gaietan". EH Bildutik esan dute azaro hasieran elkarlanerako bidea proposatu ziotela Udal Gobernuari eta EAJ-k negoziaketarako bidea onartu bazien ere, ez dela aurrekontuak onartzeko gutxieneko akordiorik egon. Aurrekontuak izan duen gehikuntza hori diru-sarreraren (dirulaguntzak eta Foru Funtsaren ekarpena) eta inbertsioen atalean gertatu da bereziki.

SAILEZ SAIL

■ **Kultura:** 1.153.209,12 euro, %6,56 gehiago. Batetik, Herriko Antzokia kudeatzeko lizitazio berria dago honen barruan %100eko igoerarekin eta, bestetik, auzoetako jaien aurrekontua %15,78 handitu dutela, batez ere,

Udal-egitura kontuan hartuta, honela banatu dute aurrekontua:

Herritartasuna: 7.304.767,35€ (%30,36) komunitatea sortzeko, herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko eta sinergia berriak sortzeko proiektuak eta inbertsioak.

Lurraldea: 11.306523,78€ (%46,98) Urbanizazioa, mugikortasuna, irisgarritasuna eta hiri-paisaiaren hobekuntza.

Antolaketa: 5.451.610,41€ (%22,66) udal-zerbitzuak.

Gastua handitu egingo da bereziki, langileen ordainsariei, hornidurei eta zerbitzuen eta kontratuen kostuei dagokienez. Honela banatzen da:

- **Langilegoa:** 5.3345.651,15€ (%22,22)

- **Gastu arruntak:** 9.844.111,27€ (%40,91)

- **Finantza gastuak:** 7.710 € (%0,03)

- **Transferentziak (dirulaguntzak):**

3.071.637,90€ (%12,77)

- **Inbertsioak:** 4.530.665,68€ (%18,91)

- **Kapital-transferentziak (erakundeen arteko diru-laguntzak):** 1.232.125,55€ (%5,12)

- **Finantza-aktiboak:** 11.000€ (%0,05)

gaueko autobus zerbitzuan aurreikusten diren inbertsioaren ondorioz.

■ **Berdintasun Saila:** %7,68 handitu dute aurrekontua, 137.642 euroko inbertsioa eginda. Besteak beste, 14.000 euroko berdintasun-plan berria egitea aurreikusi dute, eta %40 handitu dituzte berdintasuna sustatzeko dirulaguntzak, 7.000 euroraino. Nabarmendu dute esleipen orokor horrez gain, emakume-elkarteek 6.000 euroko berariazko finantzaketa-lerroa dutela, eta, beraz, elkarte horietarako erabilgarri dagoen diru-poltsa 13.000 eurokoa dela gutzira.

■ **Euskara:** 475.859,67 euro gorde dituzte euskara sustatzeko; iaz baino %7,20 gehiago. Udal Euskaltegirako aurrekontua %34 handitu dute, eta euskara sustatzeko plana, %17,19. Gotzon Garate Liburutegiak 151.599,48 euro jasoko ditu, % 5,05 gehiago.

■ **Hezkuntza:** 60.000 euro. %33,33ko igoera aurreikusi dute haurtzaroarekin, nerabezaroarekin eta gaztaroarekin lotutako proiektuetarako. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearentzako diru-funtsa %7,50 handitu dute.

■ **Gazteria:** 570.577,58 euro, % 1,93 gehiago. 15.000 euroko poltsa gorde dute hezkuntza-proiektuetarako, %20 Hezkuntza Mahaitik eratorritako proiektuetarako, eta, horrez gain, %33,33 handitu dute haur, nerabe eta gazteentzako jardueretarako poltsa.

■ **Ingurumena:** 160.000 euro; %220ko hazkundea. *Agenda 2030*, klima eta energia plana eta lurra erosiz ingurune naturala birnaturalizatzea sartu dute sail honetan.

Parke, lorategi eta kirol-instalazioen eremuetara 405.000 euro eta 533.709,45 euro bideratuko dituzte, hurrenez hurren. Horren barruan sartzen dira Mintxetako argiteria-sistema hobetzeko proiektuak, Olaizaga kiroldegiko estalkia berritzea eta etorkizunean kirol-instalazioak handitzeko proiektuak garatzea, hala nola pump truck pista bat eraikitzea.

■ **Sustapen ekonomikoan** 288.074,53 euroko inbertsioa egitea aurreikusi dute (%21,94ko igoera). Kopuru horretatik 60.000 euro erabiliko dituzte sustapen ekonomikoko jardueretarako.

INBERTSIOETAN %65,46 GEHIAGO

Elgoibartarrei "udalerrri irisgarriagoa eta azpiegitura eta zerbitzu egokiak" eskaintzeko helburuarekin, "inbertsio estrategikoei" jarraipena emateko asmoa dutela adierazi dute. Ia 4.550.665,68 euro, 2023an baino % 65,46 gehiago (2.750.297,90 euro) bideratuko dituzte inbertsioetara. Hirigintzaren arloan, 3.754.978,73 euroko aurrekontua bideratu nahi dute hirigintza-plangintzarako; %74,13ko igoera izango luke beraz.

GIZARTE ONGIZATE SAILERA %6,56 GEHIAGO

Gizarte Ongizate Sailak ere gorakada izango du datorren urtean. Errezabal guneko inbertsioetarako aurrekontua kontuan hartuta, gizarte-zerbitzuen arloko aurrekontua 3.374.389,09 eurokoa izango da. Aurtengoarekin alderatuta, %94,14ko igoera planteatu dute 2024rako. Sailaren programa edo baliabide propioei dagokienez, gizarte-larrialdietarako laguntzetan %20ko gorakada egongo da (240.000 euro); etxex etxeko laguntza-zerbitzurako 310.000 euroko aurrekontua gorde dute (%16,67 gehiago); edo gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten hirugarren sektoreko elkarreentzako laguntzetan 28.000 euroko aurrekontua sartu dute.

Bide publikoen egokitzapenetara bideratutako aurrekontuak %105eko igoera izan du, 410.000 euroko inbertsioa orotara, besteak beste, San Antolinen oinezkoentzako igarobidea egiteko eta Errezabal egoitzaren ondoan urbanizazio lanak egiteko.

INBERTSIO NAGUSIAK

- King-Kong zubia eraberritzeko lanen bigarren zatia: **756.656,23 €**
- Artekaleko eskailera mekanikoak ordezkatzeko igogailua: **300.000 €**
- Sigma auzoko etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak: **1.232.125,55 €**
- Errezabal zahar etxean aparkaleku publikoa eraikitzea: **1.541.000 €**
- Higiezinetan konponketa lanak: **422.000 €**
- Bide publikoak egokitzea: **410.000 €**
- Kirol instalazioen hobekuntzak egitea: **533.709,45 €**
- Ingurumena – Agenda 2030: **160.000 €**
- Parkeak eta lorategiak hobetzea: **405.000 €**

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ALDARRIAK HARTU DITU KALEAK

✍️ Ainhoa Andonegi 📍 Ainara Argoitia/ Asier Orbea

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, hainbat ekintza antolatu zituzten gurean ere. Mendaron, zapata gorriak jarri zituzten plazan indarkeria matxistaren biktima izan direnen izen-abizenekin ondoan, zenbaki hutsak ez direla gogorarazteko. Elgoibarren, berriz, iluntzean irten ziren kalera herritarrek. 20:00etan elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan, Andoni Bastarrika artista azpeitiarrak hondarrez egin zuen emakumearen irudiaren bueltan. Indarkeria matxistaren kontrako esaldiak irakurri zituzten eragileek, eta ondoren, Uluka batukadaren erritmora egin zuten manifestazioa Maalaraino. Musika eskolako korua zuten zain Maalan, 'Bizirik eta aske' abestia kantatzeko. Alarma Morea taldearen kontzertuarekin amaitu ziren ekintzak.





Elgoibarko Euskalgintzari aitortza egingo diote

Elgoibarko euskalgintza zelakoa izan zen ezagutzeko dokumentala sortu dute Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean, eta gaur erakutsiko dute Herriko Antzokian, 18:00etan hasita. Era berean, beren esker ona ere agertuko diete garai hartako eragile eta euskaltzaleei. Errekonozimendu ekitaldia ere izango da beraz gaurkoa.

Ordubeteko bideoarekin hasiko dute ekitaldia. Bideo horren oinarrian daude Elgoibarko Udalaren enkarguz Badihardugu elkarteak egin dituen 45 elkarrizketak. Bertan, 40 urteko euskalgintzaren historia jaso dute protagonisten ahotik. Ondoren, Elgoibarko garai hartako euskalgintzako eragileak bistaratuko dira banan-banan (eliza, gau-eskola, Ongarri elkarte, Ikastola, Elgoibarko Izarra,...), eta guztien ordezkariak igoko dira Herriko Antzokiko oholtzara, herritarren esker ona eta



txaloak jasotzera. Ekitaldia janzteko, musika, bertsoak, dantza, txistua eta antzerkia ere izango dira besteak beste, eta bi orduko iraupena izango du.



Eskuz tailerrak lokala estreinatu du Toletxe kalean

Elgoibarko Udalak 182 metro koadroko lokal bat egokitu du Eskuz elkartearen jardueretarako. Toletxe kaleko 21. zenbakian dago lokala, eta bi eremutan banatu dute: altzariak lixatzeko gela, eta pintatu eta bernizatze gela. Lokala Eskuz elkartearen beharretara egokitze obrarako 30.500 euro + BEZeko inbertsioa egin du Udalak.

'Gaitu' egitasmorako grabazioak egingo dituzte, gaur Mendaron, eta bihar, Elgoibarren

Makinei eta adimen artifizialari euskaraz erakusteko, ahots asko eta askotarikoak behar dira, eta ahots horiek biltzeko sortu dute *Gaitu* egitasmoa Jauriaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak (*gaitu.eus*). Egitasmoarekin bat egin dute Elgoibarko eta Mendaroko Udalek eta Elgoibarko Izarra eta In Leike kultur elkarteek eta gaurko eta biharko grabazio saioak antolatu dituzte.

Gaur, Mendaron, In Leike kultur elkarteak herritarrei laguntzen ariko dira, 17:00etatik 18:30era bitartean, jubilatuen lokalean. Bihar,

berriz, Aita Agirre kulturgunean jarriko dute grabaziorako lekua Elgoibarko Izarrakoek eta Udalekoek, 11:00etatik 13:30era, eta Brilet talde elgoibartarraren kontzertu akustikoarekin emango diote gero amaiera. Elgoibarko saioan parte hartzeko aurrez izena emateko eskatu dute kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita edota 643 499 169 telefono zenbakira deituta. Ahots grabazioa egiteko prest dauden herritarrek euren gailua (sakelako telefonoa, ordenagailu eramangarria) eta aurikularrak eraman beharko dituzte.

Kontzezio azoka egingo dute Mendaron abenduaren 9an

Abenduaren 8a da eguna, baina zapatuan egin ohi dute Mendaron Kontzezio Egunari lotutako jaia, eta aurten, abenduaren 9an ospatuko dute. Urtero moduan azoka izango da egitarauko osagai nagusia. 10:00etan zabalduko dute barazki eta ganadu azoka. Frontoian jarriko dituzte baserritarrek salgai ortuari, ogi eta etxeko gainerako produktuak, eta Herriko Enparantza bueltan izango dira ikusgai etxe-abereak. 10:30ean kalejira hasiko dute dultzaineroek, eta 11:00etan emango diote hasiera sagardo lehiaketari. Arno Guraso Elkartekoak arituko dira sagardoa banatzen, eta sari banaketa 14:00etan egingo dute. Sari banaketa horretan, ere berean, sari berezi bat ere zozkatuko du Udalak, goizean zehar azokan erosketa egin duten guztien artean.

Eguerdiari, eta urtero legez, dantza emanaldia egingo dute Mendaroko Gazteak dantza taldeko haur eta helduek, plazan, eta gaztetxoentzako Realaren



puzgarriak ere jarriko dituzte ikastolako patioan (goizez, 12:00etatik 14:30era, eta arratsaldez, 16:00etatik 19:00etara).

Arratsalderako, Jon Salegi *Saruberi* (Mendaro, 1972-2023) omenaldia iragarri du Tope Natxiok giza proba taldeak. Salegik berak sortu zuen taldea eta maisua gogoan izango dute taldekideek, plazan, 18:00etan egingo duten saioan.

19:00etan, berriz, txahal pintxoak banatzen hasiko dira Arno Guraso Elkartekoak. Lehian taldeak jarriko du erromeria tarte horretan, eta ondoren, DJ bat arituko da musika jartzen.

Abenduaren 11n jarriko dituzte salgai Eguberrietako bertso-saiorako sarrerak



Elgoibarko Izarrak bertso-jaialdia antolatu du aurten ere Gabonetarako, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Abenduaren 28an izango da bertso-saioa, Herriko Antzokian, 20:00etan, eta sarrerak abenduaren 11n hasiko dira saltzen Elgoibarko Izarraren egoitzan, 13 euroan (Elgoibarko Izarrako bazkide direnentzat 11 euroan). Bost bertsolari arituko dira Herriko Antzokiko oholtzan kantuan: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Onintza Enbeita eta Nerea Ibartzabal, eta Nerea Berriozabalek egingo ditu gai-jartzaile lanak.

Goazen kontzertuaren bi saio lotu dituzte Mendaron abenduaren 16rako

Hasi berri da Goazenen hamargarren denboraldia eta hasita daude kontzertu-biran ere. Bira horren barruan, Mendaroko Udalak bi saio antolatu ditu abenduaren 16rako, San Agustin kulturgunean. 17:00etan izango da saioetako bat, eta 19:00etan bestea, eta sarrerak gaur arratsaldean jarriko dituzte salgai, Morroskillo dendan eta Leire jantzi-dendan, 5 euroan. Pertsonako lau sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.



'Subcampeón' liburua aurkeztuko du Zuhaitz Gurrutxagak antzokian

Ander Izagirre kazetariarekin lau eskutara idatzitako *Subcampeón* liburua aurkeztuko du Zuhaitz Gurrutxagak abenduaren 13an, Herriko Antzokian, 19:00etan. Txapeldunordearen lekutik begiratu dio Gurrutxagak bizitzari libururako, *FutbolisTOC* bakarriketan bezala, eta umorea hartu du lagun futbolari zenean izandako osasun mentaleko arazoez hitz egiteko.

Realarekin Espainiako Ligako txapeldunorde gelditu zen garaian hasten du liburua, 2002-2003ko denboraldian. Txapeldunorde gelditu ziren garaiko kontakizunarekin hasi eta 19 urterekin Realarekin Lehen Mailan jokatzeari lotu zuen gaztearen bizitza kontatzen du liburuan. Ametsa bete zuen, dirua egin ere bai, baina futbolak beste presio batzuk ere sortu zizkion



Gurrutxagari, jasangaitzak egin zitzaizkionak, eta horrek antsietatea eta Nahasmen Obsesibo Konpulsiboa eragin zizkion. Futbolari indartsu eta ahalguztidunaren irudia apurtzen du Gurrutxagak, liburuko azalean baloiarekin egiten duen modu berean.



Jone Arriolaren laburmetrai bat proiektatuko dute azaroaren 14an Herriko Antzokian

Jone Arriola elgoibartarrak zuzendutako *Dena asmatuta dago* laburmetraia emango dute abenduaren 14an, Herriko Antzokian, 19:00etan (doan izango da). Lur (Xanti Agirrezabala) eta Martin (Jon Ander Urresti) dira filmeko protagonistak, eta arrosa koloreko bainugela zahar bateko bainuontzian porro bat erretzen daudela izaten duten elkarriketa bat gaia. Duela sei hilabete ezagutu zuten elkar Lurrek eta Martinek, baina artean ez diote izenik jarri beren arteko harremanari. Ur eta lurrun artean, bikotea elkarriketa deseroso baina beharrezko batean murgilduko da.

Xabier Obesoren erakusketa zabalduko dute Elgoibarren abenduaren 11n

Xabier Obeso (Errenteria, 1952) margolari eta grabatzaileak ibilbide artistiko luzea du atzean, eta XX. mendearen bigarren erdialdetik presioa nagusi izan arren, figurazioari inoiz uko egin ez zioten talde murriztezin horretako kide da. Abenduaren 11n erakusketa zabalduko du Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta abenduaren 22ra arteko epea egongo da bisitatzeko. Erakusketa astelehenetik zapatara ikusteko aukera izango da, arratsalde, 18:30etik 20:30erako ordutegian. Era berean, abenduaren 14an eta 16an bisita gidatuak egingo ditu.



2024ko egutegirako argazki-lehiaketako sariak banatu dituzte



Astelehenean banatu zituzten egutegiko argazki-lehiaketako sariak, eta dagoeneko eskuragarri dago egutegia Herritarren Arreta Bulegoan eta Aita Agirre kulturgunean. 30 herritarrek hartu dute parte, eta 102 argazki aurkeztu dituzte guztira. Ongarrik eta Egurrek osatu dute epaimahaia eta hauek izan dira irabazleak: Olatz Oñederra, Asier Atorrasagasti, Gurutze Ariznabarreta (3 argazki), Aitor Zabala (2 argazki), Maria Teresa Arakistain, Vicente Guinea, Clara Mejias, Denis Saiz eta Estela Quintana. Egutegi txikirako Ion Urbietaren argazki bat aukeratu dute. Saridunek 80 euroko erosketa

bonoa eskuratu dute, argazki bakoitzeko.

Marrazki lehiaketan, berriz, Herri Eskolako eta Ikastolako LH5eko 126 ikaslek hartu dute parte eta hauek saritu dituzte: Ane Aranburu, Ines Zabala, Naia Eizagirre, Laida Ramirez, Gorka Mancebo, Maylen Sesma, Nihal Achahboun, Mohamed Haron Abourakha, Uxue Jimenez, Naomi Sanchez, Vivian Mayerling Anderson eta Eki Ulibarri. 30 euroko erosketa bonua eta marrazketarako materiala jaso dute saritzat. Datorren urterako gaia ere aurreratu dute antolatzaileek: "Elgoibar, elkar zaintzen duen herria".

Udal Musika Bandak Herriko Antzokia bete du berriz ere



Santa Zezilia Eguneko kontzertu berezia eman zuten zapatuan Udal Musika Bandak, eta Herriko Antzokia bete egin zen. Serafin Zubiri abeslari nafarra gonbidatu zuten, eta Nino Bravo abeslari



ezagunaren kantak abestu zituen. Emanaldi hori bera aprobetxatu zuten Pedro Zapatari omenaldia egiteko, bandan sartu zela 50 urte bete direlako aurten. Bideoa eta informazio gehiago: **barren.eus**

Zaporeak elkartearen aldeko Igeriketa erronka solidarioa egingo dute zapatuan

Elgoibar Igeriketa Taldeak Igeriketa erronka solidarioa antolatu du Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin, abenduaren 2rako, eta batzen duten diru guztia Zaporeak elkarteari emango diote. Zaporeak Europara ailegatzen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmorik gabeko elkartea da. Egun, Grezian dauden errefuxiatu esparruetan janaria prestatzen dute harrapatuta dauden pertsona zaugarrienen bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin. Igeriketa erronka solidarioko antolatzaileek jakinarazi dutenez, parte hartzeko interesa duten herritar guztiei irekia da ekimena. "Norbaitek 100 metro bakarrik igerian egin nahi

baditu ere, ongietorria izango da. Etortzera animatu nahi ditugu herritarrak". Igerilekura joaten diren erabiltzaile guztien artean igerian zenbat metro egiten dituzten zenbatuko dute antolatzaileek, eta beraz denen artean ahalik eta metro gehien igerian egitea izango da erronka solidarioaren helburua. 10:00etatik 13:00etara egingo dute elkartasun erronka. Arratsalderako, berriz, igeriketa eskolako umeen erakustaldia prestatuko dute, 17:00etatik 19:00etara. Iaz Nuala Elkartearen aldekoa izan zen erronka solidarioa eta 3.360 luze (84.000 metro) egin zituzten igerian, guztien artean. 340,40 euro batu zituzten Nuala elkartearentzat.

Zabalik dago Mendaroko futbolin txapelketarako izena ematea



Irailan antolatu zuten lehen futbolin txapelketak izan zuen harrera ona ikusita, bigarrenkoz antolatu dute Mendaron. Ormola tabernan izango da, abenduaren 15ean eta 16an. Finala zapatuan jokatu dute 16:00etatik aurrera. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute eta abenduaren 11 izango da izena emateko azken eguna. Ormolan edo Jubilatuenen eman behar da izena. Irabazleek bi lagunentzako afaria eta kopa jasoko dituzte, eta bi lagunentzako afaria txapelondorreek. Hirugarren sailkatuentzat ere izango da saria: produktuz osatutako otarra bana.

Lizarralde eta Arrizabalagak gaur jokatu dute finala



Gipuzkoako Pala Txapelketako finala jokatzeko sailkatu dira Lagunak Pilota Eskolako Gorka Lizarralde eta Kepa Arrizabalaga. Finalerdietan Loiolatarrak taldeko Salaberria eta Aroztegi kanporatu zituzten (20-25 joanekoan eta 25-12 itzulerakoan). Zarautzeko Aritzbatalde pilotalekuan jokatu dute finala, 18:30etik aurrera. Danok Bat taldeko Igor Elezgarai eta Xabi Garalde mutrikuarrak izango dituzte aurkari.

Elgoibartik Soraluzera irteera antolatu du Morkaikok, domekarako

Eskola umeekin Elgoibartik Soraluzera joango dira domekan, Morkaikok antolatuta. Oinez egingo dute joaneko bidea Karakate eta Maltzaga aldeko bidetik,

eta autobusez itzuliko dira. Zazpi kilometroko bidea da, 250 metroko desnibel positiboarekin. 09:30ean batuko dira, Kalegoen plazan.

Hamazortzi taldek hartuko dute parte biharko Mendaron antolatu duten apustu herrikoian



Iazko ekainean apustu berezia jokatu zuten Mendaron 24 gaztek. Taldeka, erreleboka, Herriko Enparantzatik Gaintxipiara arte nor azkarrago iritsi zen jokoa. Bigarrenko ekitaldirako hazi egin da apustua, eta 54 lagun lehiatuko dira, hiru kidez osatutako 18 taldetan. Kuadrilla ezberdinetako lagunek eman zuten izena eta zozketa bidez osatu zituzten taldeak. Plazan batuko dira bihar. Talde argazkia aterako dute 09:00etan

eta 10:00etan hasiko dute lehia. EtxAbeko bidegurutzean eta Berasaluzen izango dira erreleboak, eta errepidearen ezaugarriak kontuan hartuta, autoetan ez igotzeko eta landa-eremua errespetatzeko eskatu diete ikusleei. Iaz, Alain Zulaika, Patxi Salegi eta Ander Gorostegi gailendu ziren. Kirol erronka amaitutakoan, parte-hartzaile guztiek elkarrekin bazkalduko dute eta Patxangoi erromeria taldeak girotuko du bazkalostea.

Abenduaren 18ra arteko epea dago Lizarperekin mendian federatzeko



Mendizaleari komeni zaio federatzea, eta Mendaroko Lizarpe Mendi Klubak horretarako bidea eman die herritarrei aurten ere. 2024an Lizarperen bidez mendian federatu nahi dutenek abenduaren 18ra arteko epea dute. Horretarako, *Lizarpe.com* webgunean sartu behar da, federatzeko estekan klik egin eta fitxa betetzeko ondoren.

Abendurako bi xake txapelketa antolatu ditu Elgoibarko Xake Taldeak



Xakearen hilabetea da abendua Elgoibarren eta bi txapelketa antolatu ditu Elgoibarko Xake Taldeak urtearen hondarrerako. Batetik, Emakumeen III. Xake Txapelketa antolatu dute abenduaren 16rako. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian izango da (16:15). Doakoa da izena ematea: elgoibarchess@gmail.com / 747 459 343). Bestetik, joan den martxoan hil zen Tomas Conderen Omenezko estreinako xake txapelketa antolatu dute abenduaren 23rako. Taldekako txapelketa izango da, eta Olaizaga kiroldegian jokatuko dute (16:30).

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Beharrezkoak diren titulazioak dauzkat, baita erreferentziak ere.
614 114 360

PARTIKULARRAK


Batxilergoko ikasle bati Matematika eta Fisika irakatsiko lizkiokeen norbaiten bila nabil, Mendaron.**688 649 596**

Eskaintza

Baserri batean garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Astean hiru-bost orduko lan jarduna eskaintzen dugu. Beharrezkoa da autoa izatea.
627 117 819

Elgoibarren estetika sektorean lan egiten duen pertsona autonomo baten bila nabil lokala konpartitzeko.
Coworking. **624 646 336**

Umea zaintzeko pertsona euskaldun baten bila nabil.
688 639 371



I. URTEURRENA


Fernando Moreno Chaves

“Taxista”

2022ko abenduaren 3an hil zen, 75 urte zituela.

Zure azken bidai honetan faltan botako zaitugu.

Etxekoak





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Lurralde Ekonomikoa

Jakin nahiko nuke obra berri bat zer den eta zein baldintza bete behar dituen Jabetza-Erregistroan inskribitu ahal izateko.

Obra Berriaren Deklarazioa eskritura bat da funtsean, zeinean lursail baten deskribapena aldatzen den, egin den obra berria jasota gera dadin. Eskritura hori emateko, ezinbestekoa da Obra Baimena izatea eta baimen hori eskatu ahal izateko aurkeztu zen proiektua aurkeztea. Horrez gain, obra zuzendu duen arkitektoak honako kontu hauek ere ziurtatu behar ditu.

1. Obra bukatu bada, tekniko horrek ziurtatu behar du obra baimena eskatzeko erabili zen proiektuaren arabera egin dela eta eskrituran jasotakoa bat datorrela egindako lanarekin eta aipatutako proiektuarekin.
2. Obra egiten ari badira, teknikoak ziurtatu behar du eskrituran jasotako deskribapena egiaz hala betetzen dela eta bat datorrela proiektuan jasotakoarekin.

Bi kasuetan, teknikoak notario aurrean agertu behar du eta han sinatu behar ditu ziurtagiriak eta dagokion eskritura. Baimen edo proiekturik gabe egin diren obretan, arau bereziak aplikatu daitezke.

AHOLKUA: Obra Berriaren Deklarazioa obra horren balioaren %0,5eko egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari lotua dago.



ROSA Mª PINTADO


Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Aimar**, Realzale, abenduaren 4an 10 urte beteko dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator.



Zorionak, **Eire!** Konturatzerako, 8 urte! Ondo-ondo pasa zure egunean. Etxekoen, eta bereziki, Iratiren partez, mila muxu.



Zorionak, **Peru**, zure 10. urtebetetzean! Zein ondo pasatu genuen! Muxu asko, familiako guztion partez.



Zorionak, **Ane!** Abenduaren 11n, 8 urte! Egun ederra pasa! Etxeko denon partez.



Handitzen handitzen... 8 eta 6 urte! Zorionak, **Lizar** eta **Intza!** Etxeko denon partez.



 **Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo barren.eus webgunean**

 **943 743 704**  **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - Elgoibar

Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.



KONTSULTATEGIA

Oraindik ez duzu ahoko eskanerraren berri?

Odontologian erabiltzen den eskaner bat da, pazientearen ahoa 3Dn irudikatzea lortzeko erabiltzen den gailu digitala. Bere teknologiaren bidez, hortzeria bisortzen da zehaztasun-maila oso altuan, moldedun tradizionalak aise gainditzen dutelarik.

Aldaz hartz-klinkan metodo hau urteetan erabiltzen dihardugu eta esan dezakegu lortzen diren emaitzak izugarri onak izaten direla. Hurrengoak dira 3D eskanerraren abantailetakoz batzuk:

- **Eraginkorra:** Aho-egituraren informazio zehatza eta egiazkoa ematen du.
- **Arintasuna:** Beste metodo batzuk baino diagnostiko azkarragoa eta tratamendu azkarragoa egitea ahalbidetzen du.
- **Erosotasuna:** Pazienteak ohiko metodoa saihesten du, non pasta eta kubeta bat erabiltzen diren moldea ahotik neurrirra ateratzeko.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

1 BARIKUA

17:00 'Gaitu.eus'

egitasmorako grabazioak, Mendaron. In Leikek antolatuta, jubilatuen lokalean.

18:00 'Egin zenutelako gara!'. Elgoibarko Euskararen Historia Soziala 1950-1990. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, Herriko Antzokian.

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia, Lilan.

18:30 EinGO taldearekin, kalez kaleko erromeria. Mendaron, Udalak In Leike kultur elkartearen laguntzarekin antolatuta.

2 ZAPATUA

10:00 Herri apustua,

Mendaron. Herriko Enparantzatik Gaintxipiara.

10:00 - 13:00 / 17:00

Igeriketa erronka solidarioa. Elgoibar Igeriketa Taldeak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

10:00 Nuala Elkartearen informazio mahaia, Desgaitasunaren Nazioarteko Egunaren harira. Kalegoen plazan.

11:00 'Gaitu.eus' ekimenerako grabazioak. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, Aita Agirre kulturgunean. Segidan, Brilet taldearen kontzertua.

3 DOMEKA

17:00 Antzerkia: 'Munduari bira 80 egunetan'. Mendaroko Udalak antolatuta, San Agustinen.

17:30 Ekain pailazoaren emanaldia. Atxutxiamaikak antolatuta, Aita Agirre Kulturgunean.

4 ASTELEHENA

18:30 Desfibriladoreak erabiltzen ikasteko prestakuntza saioa, Mendaron. Izena emanda dutenentzat. Udaletxeko udalbatza aretoan.

19:00 Goiatz Landalibar eta Sara Iriondok 'Bekatua' liburuaren aurkezpen dramatizatua egingo dute Pitxintxun, Durangoko Azokaren harira.

11 ASTELEHENA

18:30 Xabier Obesoren erakusketa. 'Errealismo garaikidea'. Hilaren 22ra arte, Kultur Etxean. Bisita gidatuak egingo dituzte abenduaren 14an eta 16an.

12 MARTITZENA

19:00 Zineforuma: 'Hitzak komuneko hormetan'. Osasun mentala eta gazteak. Agifes elkarteak antolatuta. Herriko Antzokian, doan.

13 EGUAZTENA

16:00 Tailerra: 'Suizidioaz hitz egin daiteke'. Albainduren eskutik, helduentzako saioa. Aita Agirreko areto nagusian.

18:30 Tailerra: 'Suizidioaz hitz egin daiteke'. Badabidebat-en eskutik, gazteentzako saioa. Aita Agirreko areto nagusian.

18:30 Hitzaldia: 'Energia eta material krisia'. Karakate Bizirik antolatuta, Antonio Turiel eta Antonio Aretxabalak emango dute. Musika Eskolako auditoriumean.

19:00 Ipuin kontaketa saioa, helduentzat. Ines Bengoarekin, 'El banquete'. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 'Subcampeón' liburuaren aurkezpena. Zuhaitz Gurrutxagak eta Ander Izagirrek aurkeztuko dute. Herriko Antzokian.

14 EGUENA

19:00 'Dena asmatuta dago' laburmetraiaren emanaldia eta ondoren Jone Arriola zuzendariarekin eta sortzaileekin solasaldia, Herriko Antzokian.

19:00 Goiatz Labandibarren 'Bekatua' liburuaren aurkezpen dramatizatua Pitxintxun, idazlearekin eta Sara Iriondorekin.

KONTZETZIO AZOKA MENDARON

9 ZAPATUA

10:00 Barazki eta ganadu azokaren hasiera.

10:30 Dultzaineroen kalejira

11:00 XI. Sagardo Lehiaketa Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin.

12:00 Mendaroko Gazteak dantza taldearen emanaldia.

12:00-14:30/16:00-19:00 Realeko puzgarriak ikastolako jolastokian.

14:00 Sagardo lehiaketako sari banaketa eta erosketako zozketa.

18:00 Jon Salegi "Sarube"-ri omenaldia. Tope Natxiok giza proba taldeak antolatuta.

19:00 Sahieski pintxoan banaketa eta Lehian taldearekin erromeria.

Ondoren, DJ emanaldia.

Zinea
Herriko Antzokian



'La ermita'

2, zapatua:
19:00 / 22:15
3, domeka: 19:00
4, astelehena: 21:00
6, eguaztena: 19:00

'Bidasoa 2018-2023'

8, barikua: 19:00

'Napoleón'

9, zapatua:
19:00 / 22:15
10, domeka: 19:00
11, astelehena: 21:00

**'Bill Kwai:
Museoaren lapurreta'**

10, domeka: 16:30

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

ABENDUA

- 1 BARIKUA
- 2 ZAPATUA
- 3 DOMEKA
- 4 ASTELEHENA
- 5 MARTITZENA
- 6 EGUAZTENA
- 7 EGUENA
- 8 BARIKUA
- 9 BARIKUA
- 10 ZAPATUA
- 11 DOMEKA
- 12 ASTELEHENA
- 13 MARTITZENA
- 14 EGUAZTENA
- 15 EGUENA

Egunez

- Ibañez
- Garitaonandia
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Barrenetxea
- Oruesagasti
- Ibañez
- Ibañez / ■ Arriola
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Yudego
- Oruesagasti

2023 urte guztian, gauetz: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar) - 943 203 052

<p>■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>
---	--	--




Jose Antonio Kortazar Maiztegi

"Plaentxi"

2023ko azaroaren 28an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Heldu nazazu eskutik, soilik zuk dakizun bezala...
Gelditu dezagun denbora, gure begiradan.
Ta esaidazu belarrira, beste behin, mesedez, aittitta,
zure bihotzaren zati bat eramango dudala...
Askto maitte zaittugu.***






Eibarko Astelena frontoian ateratakoa da gaur erretratu zaharren atalera ekarri dugun argazki hau, Mutrikuko *Kulixka* ontziaren hondoratzean hildako zazpi marinela omentzeko jokaturako pilota partidakoa. Lau elgoibartar aritu ziren partida hartan, nor baino nor, eskuz binaka: Gorostiza eta Iureta batetik, eta Arriola IV.a eta Esnaola bestetik. 16 tantotara jokatu zuten partida eta Gorostiza eta Iureta nagusitu ziren, 16 eta 14ko emaitzarekin.

1946koa da argazkia. 1945eko abenduaren 29an hondoratu zen Mutrikuko portutik bisigutara itsasoratu zen *Kulixka* itsasontzia eta hondamendian zazpi mutrikuar hil ziren.

Ezkerretik eskumara: Juanito Iureta, Iñaki Gorostiza, Javier Arriola *Arriola IV.a* eta Juan Miguel Esnaola *Moñanitas*.



LAGUNAK
colchonería textil hogar

**Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

KONTZETZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDUAK 9
LARUNBATA



FANTASIA DA!

ZU NON, HAN DA! 58. DURANGOKO AZOKA

AURKEZPEN DRAMATIZATUA

Abenduak 14 · 19:00

Goiatz Labandibar eta Sara Iriondo "Bekatua"

Pitxintxu liburu denda (Elgoibar)



Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,
Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Opari zoragarriak ari gara jasotzen!
Eskerrik asko!



Margotzeko
liburuak



Teniserako
pilotak



Galtzerdiak



Agendak



Goxokiak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



TXANKAKUA

1.800€

**Banatuako ditugu 10 erosketa txeketan
(Zozketa 2024ko urtarrilaren 9an)**



**Gabonetako 6 saski
banatuako ditugu
(Zozketa abenduaren 22an)**



**Urtarrilaren 3an Elgoibarko
kaleetan zehar TXU-TXU
trena izango da!**

